

## ESAK HAMAHIRU

Maria Luisa Arroitauregi Aranzetak bere aita Pedrori ikasitako kanta edo erreztatua. Orobiourrutigoikoa (*Sakristauena*) baserrian jaio zen Maria Luisa.

Ohikoa da 13 zenbakiari zaion beldur irrazionala: «hamahirufobia» edo triskaidekofobia (τρεισκαίδέκα, *treiskaideka* 'hamahiru'). Ez esateko hamahiru, ez dagoela hamahirurik esaten da abesti honen ohiko bertsioan, Ez dok amairu taldearen izena hortik dator. Abestiaren aldaera hau osterakoa da: hamahiruzalea, triskadekofiloa.

Esak hamahiru  
ollarrak eitten dxok zeruan  
ama ederren onduan.  
Hamabi dira koruak.  
Hamaika milla aingeruak.  
Hamar mandamentuak.  
Beratzi ordenamentuak.  
Zortzirak dira zeruak.  
Zazpi sakramentuak.  
Sei argilaridxuak, sei.  
Bost Jesusen bost llagak, bost.  
Lau ebanjelistiak, lau.  
Hiru trinidadia, hiru.  
Erromako altarak bi.  
Gure Jauna, bera dok bat.  
Berak salbauko gaidxozak,  
Berak salbauko gaidxozak.

